

## >>> Hegan egiteko aukerak

# ERASMUS+ BEKEN INFORMAZIOA SMT PRAKTIKAK – GOI MAILAKO ZIKLOAK

## Edukiak

1. HELBURUAK
2. BEKEN IRAUPENA ETA EPEAK
3. BALDINTZAK
4. HERRIALDEAK
5. FINANTZAKETA
6. ORDAINKETA PROZEDURA

### 1. HELBURUAK

- a) Ikasleei Europar Batasuneko lan merkatu zabalak dituen beharretara egokitzen laguntzea.
- b) Ikasleek gaitasun espezifikoak gara ditzaten laguntzea, gaitasun linguistikoa barne, eta lan esperientzia hartzearekin batera, herrialdeari buruzko kultura, gizartea eta ekonomia ezagutza areagotzea.
- c) Lantegi eta ikastetxeen arteko kooperazioa bultzatzea.
- d) Gazteek atzerriko ikaskuntzan zehar lortutako gaitasunak aintzatestea, kualifikazio maila altua garatzen laguntzea eta nazioarteko esperientziak ematen duen ikuspegi zabalagoa duten profesionalak formatzea.

### 2. BEKEN IRAUPENA ETA EPEAK

Politeknika Txorierri eskatu duen deialdiak, 13 asteko iraupeneko lan praktikak aurreikusten ditu Europako enpresetan<sup>1</sup>, betiere **egun osoko** ordutegiarekin. Mugikortasuna martxoa eta ekaina artean gauzatuko da.

---

<sup>1</sup> Enpresa bezala bere aktibitatea arlo publiko edo pribatuan garatzen duen edozein erakunde ulertzen da, bere tamaina, errejimen juridikoa edo jarduten duen sektore ekonomikoa edozein izanda ere, ekonomia soziala barne. (oinarri legala, 2. artikulua, 25. zenbakia). EZ dira harrera erakunde bezala honoko enpresa hauek hartzen:  
□ EBeko instituzio edo EBeko beste erakundeak (zerrenda osoa hemen: [http://europa.eu/institutions/index\\_es.htm](http://europa.eu/institutions/index_es.htm))  
□ EBeko programak kudeatzen dituzten erakundeak (interes gatazka eta/edo finantziario bikoitza saihestearren)  
□ Jatorrizko herrialdeko instituzio edo ordezkariak publikoak, hala nola, enbaxadak, kontsulatuak, institutu kulturalak, ikastetxeak, etab, programaren nazioarteko baldintzaren derrigortasunagatik.

## >>> Hegan egiteko aukerak

### 3. BALDINTZAK

- a) GMHZ bateko 2. kurtsoko ikaslea izatea Politeknika Txorierri Ikastegian, ikasturteko edozein titulazio ofizialean (ikasturtean matrikulatuta).
- b) Matrikulatuta dagoen ikastetxe horretako hautaketa prozesuan aukeratua izatea, eta inongo diziplina espedienterik edo antzekorik ez edukitzea.
- c) GMHZri dagozkion modulu guztiak gaindituta izatea.
- d) EBeko kide den edozein herrialde bateko hiritartasuna edukitzea, eta parte hartzen duten herrialde batekoa ez izanda ere, Politeknika Txorierri Ikastegian matrikulatuta egotea.
- e) Ezin izango da aldi berean beste programa edo beka batean parte hartu.

### 4. HERRIALDEAK

Gaur egun, Politeknika Txorierri akordioak ditu bitarteko bazkideekin ondorengo herrialdeetan: Irlanda (Cork); Italia (Milan, Palermo); Polonia (Krakovia, Varsovia, Rzeszów); Txekiar Errepublika (Praga); Malta; Bulgaria (Sofia).

Edonola ere, herrialdeak esleitzea Berrikuntza eta Nazioarteko Sailari dagokio, ikaslearen prestakuntza-zikloaren, haren profilaren eta herrialdean dauden enpresen sektoreen arabera.

### 5. FINANTZAKETA

- a) Erasmus+ programako poltsa ekonomiko bat egonaldiak irauten duen hilabete bakoitzeko, herrialdearen arabera. Honako zenbateko hauek adierazten dira egonaldi osorako (3 hilabete):
  - a. 1 taldea: 1.500,00 EUR: Irlanda
  - b. 2 taldea: 1.350,00 EUR: Italia, Malta
  - c. 3 taldea: 1.200,00 EUR: Txekiar Errepublika, Polonia, Bulgaria
- b) Aurreko ikasturtean **Eusko Jaurlaritzako Hezkuntza Sailak emandako Unibertsitateaz kanpoko ikasleak eskolatzeko beka eta ikasketa-**

## >>> Hegan egiteko aukerak

laguntzak<sup>2</sup> jaso zituzten ikasleek, 250,00 euroko laguntza gehigarria jasotzen dute hilean. Hala badagokio, herrialde bakoitzeko eta egonaldi osorako (3 hilabete) zenbatekoak honako hauek dira:

- a. 1 taldea: 2.250,00 EUR: Irlanda
  - b. 2 taldea: 2.100,00 EUR: Italia, Malta
  - c. 3 taldea: 1.950,00 EUR: Txekiar Errepublika, Polonia, Bulgaria
- c) Eusko Jaurlaritzako Hezkuntza Sailak emandako laguntza gehigarria, goi-mailako hezkuntzako ikastetxeei zuzendutako nazioarteko mugikortasunerako dirulaguntza gisa. Erasmus+ programan parte hartzen duten Goi Mailako Hezkuntzako ikasle guztiek jaso ahal izango dute laguntza gehigarri hau, eta bateragarria da Eusko Jaurlaritzako Hezkuntza Sailak unibertsitateaz kanpoko ikasleak eskolatzeko ematen dituen ikasketa-beka eta -laguntzekin (2. puntua). Zenbatekoak aldatu egiten dira deialdi bakoitzean, 500,00 euro eta 600,00 euro artean ikasle bakoitzeko egonaldi osoagatik.

## 6. ORDAINKETA PROZEDURA

Poltsa ekonomikoa onuradunei ordainduko zaie adierazten duten kontu korrontera transferentzia eginez. Transferentzia horren titular edo titularkide izan behar dira:

- a) Erasmus+ programaren poltsa ekonomikoaren %80, mugikortasuna hasi aurretik.
- b) Eusko Jaurlaritzaren laguntza gehigarriaren %80, mugikortasuna hasi aurretik.
- c) Erasmus+ programaren poltsa ekonomikoaren gainerako zenbatekoa (%20), egonaldia amaitzean.<sup>3</sup>
- d) Eusko Jaurlaritzaren laguntza gehigarriaren gainerako zenbatekoa (%20), hurrengo ikasturteko urrian.<sup>4</sup>

---

<sup>2</sup> <https://www.euskadi.eus/unibertsitatez-kanpoko-ikasleak-eskolatzeko-ikasketa-beka-eta-laguntzak/web01-a2hikas/eu/>

<sup>3</sup> Ordainketa guztiak egiteko, onuradunak dagokion dokumentazioa aurkeztu beharko du, ezarritako epeen arabera.

<sup>4</sup> Politeknika Txorierrri kofinantzaketa horren %80 aurreratzen die ikasleei, eta Erasmus+ programaren poltsa ekonomikoaren % 80arekin batera jasotzen dute, irten aurretik. Gainerako zenbatekoa datorren ikasturteko urria aldera sartuko da; izan ere, Eusko Jaurlaritzak ez du Politeknika Txorierrin sartuko harik eta nazioarteko mugikortasunak amaitu eta ziurtatu arte.